



# 2021eko **JARDUERA PLANA**



**Kulturaren  
Euskal Behatokia**  
Observatorio Vasco  
de la Cultura



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



# 2021eko JARDUERA PLANA

## Aurkezpena 3

### 1. Eragiketa estatistikoak 4

#### 1.1. Berritasunak 4

Kultura-alorreko eta sormen-sektoreetako finantzaketa eta gastu publikoaren estatistika 4

Arteei, Kultura Industriari eta Sormen Industriari buruzko 2019ko Estatistika 4

#### 1.2. Azterlan koitunturalak eta sintesikoak 4

Luzetarako panelak 4

Sintesi-eragiketak 4

#### 1.3. Lankidetzak 4

### 2. Azterlan kualitatiboak 5

Irakurtzeko ohiturak 5

Jasangarritasuna 5

Hirugarren sektorea 5

Durangoko Azokaren online esperientziaren azterketa 5

Kultura euskaraz 5

Kulturako profesionalen gaikuntza: beharrak eta joerak. 5

ADDE Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarteak 6

### 3. Krisiaren Behatokia 6

### 4. Beste jarduerak batzuk 6

Behatokiaren web-ataria eguneratzea 6

Eremuak 6

Bertsozale Elkarteak 6

Argitalpen-ekoizpena 6

Ondare arloko hainbat adierazle diseinatzea eta hedatzea 6

Hainbat jardunalditan parte hartzea 6

### 5. Eragiketa nagusien kronograma 7

# AURKEZPENA

Kulturaren Euskal Behatokia euskal kulturaren errealitateari buruzko informazio- eta ikerketa-zentroa da. Behatokiaren egitekoa zera da, informazio baliagarria lortzea eta ezagutza sortzea, EAEko kultura-sektoreei eta kultura-arloko politikak garatzeko arduradunei orientabidea emateko. Misio hori bi lan-ildoren bidez gauzatzen da: arlo estatistikoa eta ikerketa kualitatiboak. Estatistikaren arloan bi erronka izan dira: alde batetik, informazio erabilgarria eta kalitatezkoa sortzea, estatistikak sustatzen dituen ohiko hainbat eragiketa-sail finkatuz eta zabalduz; eta bestetik, emaitzak komunikatzea, emaitza horien interpretazioa erraztuko duten hedapen-produktuen bidez. Bestalde, euskal kultura-sektorea egituratzeko helburua duten azterlan kualitatiboek hainbat gai landu dituzte, besteak beste, kultura-politikak, nazioarteko agenda eta kultura-arloko ikerketa-joerak, eta horrez gain, sektoreen eskaerak biltzeko leiho bat irekita utzi dute beti. Horixe izan da Behatokiaren ibilbidea, eta etorkizunean ere, informazioa eta ezagutza sortzeko eta baliozkotzeko lanari eutsiko dio, hori baita Behatokiaren izateko arrazoa.

Baina 2020ko martxoan Covid-19a bat-batean agertu izanak eta horrek kulturaren sektorean izan duen eraginak beste erronka handi bat ekarri dio ikerkuntzan diharduen edozein erakunderi. Egoera ezezagun honen aurrean, ezinbestekoa izan da datu eta tresna bizkorak izatea, benetako eraginaren berri eman ahal izateko. Behatokiaren erreakzioa azkarra izan zen eta krisiaren Behatokia jarri zuen martxan. Horri esker, hainbat errealitate ari dira azaleratzen, zeinak, existitzen zirela jakin arren, ez baitzuten presentziarik izaten estatistiketan. Horrek aukera eman du Behatokiaren ohiko eragiketak egokitzeko, eragiketa horien irismena handituz edo datozen urteetan pandemiaren eraginari eta bilakaerari buruzko datuak biltzeko galdera berriak sartuz. Estatistika-eragiketa horiek pandemiaren

aurreko egoerari buruz ematen duten informazioari esker, konparaziozko erreferentzia-puntuak izan daitezke, eta horren bidez, pandemiak sektorean izan duen eragina neurtu. Horrez gain, pandemiak izan duen eraginaren bilakaera islatzen duten adierazle berriak gehitzen badira, estatistika-eragiketa horien balioa indartuko da, Euskadiko errealitate kulturalaren jarraipena egiteko ezinbesteko tresna gisa. Alde horretatik, Arte eta Kultura-industria, Sormen-industria eta Gastu publikoari buruzko estatistikek, zein luzetarako panelek ere, adierazle berriak sartu ahal izango dituzte —beren funtsa galdu gabe—, espektro zabaleko esparru komun antolatatu batean, krisiaren jarraipena egin eta berreskurapena lortze aldera.

Bestalde, 2021ean, azterlan kualitatiboan leerroak tokia egin beharko die, baita ere, beste hainbat ikerketari, sektorearen jardura suspertzen laguntzeko behar diren politikak bideratuko badituzte. Horrela, sektoreko eskaerak bideratzeko ireki den bidea ezinbesteko informazio-iturria izango da azterlan berriak egiteko. Horrez gain, kontuan izan behar da errealitate berri honen bidez bi kontu bizkortu direla, alegia: eraldaketa digitala eta bere erronkak, eta jasagarritasuna. Gai horiek politika orokorren lehenetsunaren artean kokatu dira, eta berriazko irakurketa egin behar zaie kulturaren ikuspegitik. Azkenik, generoaren bidezko zeharkako ikuspegia indartu behar da, garrantzitsua baita.

2021 trantsizio- eta itxaropen-urtea da. Urte gogorra izango da, egoera metatu egin baita, eta pandemiaren eraginak luzatu baitira. Hala ere, urte honetan, hobekuntzarako itxaropena hauteman daiteke, pandemia munduan uzten ari den eta datozen urteetan iraungo duen haustura sozial, kultural eta ekonomikoaren ondoren.

# 1. ERAGIKETA ESTATISTIKOAK

Arlo estatistikoari dagokionez, berritasun nagusia finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistikan nabaritu da, sormen-sektoreak barne hartuko baitira. Horiekin batera, Behatokiak sustatzen dituen eragiketa koiunturalak eta sintesikoak daude.

## 1.1. Berritasunak

### **Kultura-alorreko eta sormen-sektoreetako finantzaketa eta gastu publikoaren estatistika**

Estatistikaren alorreko urteko berritasun nagusia zera da, sormen-sektoreetako gastua gastu publikoaren eragiketetan sartzen dela. Estatistiken lehen edizioan gertatu ohi den bezala, errolda on bat izatea da errolda nagusia, horren bidez informazio-iturriak identifikatuko baitira, bai administrazio maila guztietan (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak), bai sormen-sektoreei zuzendutako politikak dituzten sozietate publikoetan.

Landa-lana, ziur aski, uda amaieran hasiko da.

### **Arteei, Kultura Industriei eta Sormen Industriei buruzko 2019ko Estatistika**

Bigarren berritasuna estatistikaren emaitzak izango dira, datuak ematen baititu kultura- eta sormen-sektore hauen jarduerari buruz: arte eszenikoak, arte bisualak, musika, liburua, ikus-entzunezkoak, hizkuntza-industria, bideo-jokoak, moda, arkitektura, diseinua eta publizitatea. Kulturaren sektoreetan, produkzioa, erakusketa eta merkataritza sartu dira. Urtean zehar, adierazleak eta analisiak zabalduko dira, aipatu sektoreen jardueraren, enpleguaren eta jarduera ekonomikoaren berri emateko.

## 1.2. Azterlan koiunturalak eta sintesikoak

### **Luzetarako panelak**

Kultura-ohituren eta -praktiken panelaren beste bi jasoaldi egingo dira; horren bidez, parte-hartze kulturalaren bilakaeraren jarraipena egingo da, 204 pertsonako lagin finko batean oinarrituta. Tresna esperimental horrek duen azalpen-ahalmena areagotu egiten da denborak aurrera egin ahala; izan ere, aukera ematen du jakiteko pertsonen bizi-zikloan zer aldaketa gertatzen diren eta aldaketok zer eragin duten pertsona horien praktika kulturaletan.

Enpresa-konfiantzaren adierazleei buruzko arteen eta kultura-industriren panelari dagokionez, beste jasoaldi bat egingo da. Gogoratu behar da panel hau sormen-sektoreetara zabaldu dela, eta 70 eragile berri daudela.

### **Sintesi-eragiketak**

Con el objetivo de optimizar la información de otras fuentes de información, el Observatorio elabora un análisis de las empresas, el empleo y el mercado de trabajo de la cultura con datos del DIRAE y Lanbide.

## 1.3. Lankidetzak

Behatokiak akordioak sinatu ditu unibertsitate-eremuan ikerkuntzan diharduten bi erakunderekin: Orkestra - Lehiakortasunerako Euskal Institutua, Deusto Fundaziokoa, batetik; eta EHUKO NOR Ikerketa taldea (Applika+ proiektuaren barruan) bestetik.

Orkestrarekin egingo den lankidetzari esker, Kultura eta Sormen Industriak (KSI) ezagutzen jarraitzeko oinarri batzuk identifikatu ahalko dira, Euskadiko lehiakortasun jasangarri eta inklusiboaren ereduaren barruan; izan ere, industria horiek jarduera ekonomikoaren bultzatzaile dira. Applika+ proiektuaren helburuak hauek dira: EHUKO ikasleen audientziak

inkestean eta panel baten bidez ikertzea, ikus-entzunezko edukiak ebaluatzea eta joera berriak aztertzea.

Azkenik, eta beste esparru batean, Behatokiak EUSTATEkin duen lankidetzaren nabarmendu behar da, Kulturaren Kontu satelitearen gainean eragiketa bat egiteko asmoa baitu etorkizunean.

## 2. AZTERLAN KUALITATIBOAK

Urteko zazpi azterlan egiteko konpromisoa hartuta, programa irekia sortu da, eta hori diseinatzeko, Behatokiak berak edota Jarraipen Batzordeak egiten dituen proposamenak, zein sektoreen eskutik jasotzen diren eskaerak hartu dira oinarri. Behatokiaren iristen diren eskaerei erantzuteko asmo hori dela-eta, urteko programa behin-behinekoa izaten da urte hasieran, eta ixten joaten da, urteak aurrera egin ahala.

Kontuan hartuta 2020rako aurreikusita zeuden hiru azterlan atzeratu egin behar izan direla pandemiaren ezarritako lehentasunak direla-eta, 2021eko programan berreskuratzea proposatu da.

### Irakurtzeko ohiturak

Gogoratu behar da proposamen hau irakurtze-defizitaren ondorioz sortu dela, batez ere euskaraz ez irakurtzearen ondorioz; defizit hori Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestan antzeman zen. Liburutegi Zerbitzuan egiten ari den azterlanarekin koordinatu behar da.

### Jasangarritasuna

Pandemiaren ageri-agerian jarri du gaur egungo gizartearen ekoizpen-eta kontsumo-ereduek oinarri hartzen duten jasangarritasun maila ez dela

nahikoa. Globalizazioa, hiri-bizitza, arrakasta eta masibotasuna, hurbilekoa, distantzia, lan-baldintzak, desberdinkeria, etxebizitza, zahartza, etab., betiko gaiak dira; baina, pandemiaren ondorioz, azalatu egin dira, ezezagunak ez ziren arren, lehen ezin baitzuten lortu euren gordinen ikusgai izatea. Unea iritsi da kultura-jardueraren oinarriko ereduaren gaineko hausnarketa mahaigaineratzeko, ikuspegi zabal batetik abiatuta.

### Hirugarren sektorea

Orain arte, Behatokiak ez du kulturaren eta sorkuntzaren hirugarren sektorea sakon aztertu. Azterketa egingo da Eusko Jaurlaritzako elkartearen erregistroan eskuragarri dagoen informazioarekin, eta azterketa hori Behatokiaren estatistiketan barne hartzen diren datuekin osatuko da: Arteak eta Kultura Industriak (elkarteak eta fundazioak), Gastu Publikoa (elkarteak eta fundazioak) eta ohiturak (praktika amateurak). Hausnarketa hori sektoreen ordezkari-erakunde profesionaletara zabaltzea daiteke, eta maila irekiago batean, gobernantzarekin lotutako gaiak barne har ditzake, hainbat ikuspegi arabera (parte-hartzea, erabakiak hartzea, harremana, hitzarmena, etab.).

### Durango Azokaren online esperientziaren azterketa

Lankidetzaren ireki da Durango Azokaren eta Behatokiaren artean, 2021. edizioaren online erosketen emaitzak aztertzeko. Esperientzia berria izan zen Azokarentzat, eta Behatokiari azterketa sakona egiteko aukera ematen dio, erosketa-datu errealekin.

### Kultura euskaraz

Behatokiaren ekoizpen guztietan euskara zeharkako aldagaitzat hartzeaz gain, berriazko lan bat egitea komeni da, ikuspegi kuantitatibotik zein kualitatibotik euskarazko kulturaren eskaintza eta eskaria zein den aztertzeko.

### Kulturako profesionalen gaikuntza: beharrak eta joerak.

Goi-mailako arte-irakaskuntzaren erronken, etorkizuneko perspektiben eta artisten eta karrera artistikoen profesionalizazioaren inguruan egindako azken lanak egin ondoren, gaikuntza-premiei buruzko azterketa honekin ixten da zikloa.

Orain arte jaso diren azterlan sektorialen eskaerei dagokienez, honako azterlan honi ekingo zaio:

### **ADDE Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte**

EAEko dantzaren sektorea aztertzeke eskatu dio Behatokiari. Bertan, datuak bildu eta sektorea aztertuko da. Helburua, ikerketaz gain, elkartean modu iraunkorrean ezar daitekeen metodologia garatzea izango da.

## 3. KRISIAREN BEHATOKIA

Tresna hori baliagarria denez sektoreak pandemiaren ondorioz bizi duen krisiaren jarraipena egiteko, eta pandemiaren ondorioak arintzeko hartu diren neurriak ebaluatzeke, 2021ean ere krisiaren Behatokiari eutsi nahi zaio, unean uneko egoerara egokituz.

## 4. BESTE JARDUERA BATZUK

### **Behatokiaren web-ataria eguneratzea**

2021 hasieran web-orria eguneratzen amaitu nahi da.

### **Eremuak**

Eusko Jaurlaritzako programa honek hamar urteko ibilbidea izan du, eta orain, bere iragana eta oraina aztertu eta balioetsi nahi dira. Izan ere, programa honen helburua eztabaidarako eta topaketarako giroa sortuko duen testuingurua ahalbidetzea da, egungo errealitate artistikoaren behatoki moduan funtziona dezan.

### **Bertsozale Elkarte**

Lankidetzaz-zubi bat ireki da informazioa partekatzeko eta elkarteari adierazleentzako aginte-terratza bat proposatzeko, eta horren bidez, elkartearen egoera ezagutzeko eta haren jarraipena egiteko, baita egoera hori beste kultura-sektore batzuekin alderatzeko ere.

### **Argitalpen-ekoizpena**

Argitalpen-ekoizpenaren analisia egingo da, argitalpen-ekoizpenerako laguntzen deialdian sartu beharreko gaiak gehitzeak izan dezakeen eragina aztertzeke.

### **Ondare arloko hainbat adierazle diseinatzea eta hedatzea**

Arlo horien adierazle batzuk garatu eta argitaratuko dira, liburutegien eta museoen zerbitzuekin lankidetzan.

### **Hainbat jardunalditan parte hartzea**

Behatokiak UPV/EHUren Udako Ikastaro hauetan parte hartuko du:

- Mintzolak antolatuta: *"Pandemia garaiko kulturgintza: egoera eta erronkak"*. Pandemiak euskal kulturaren dituen ondorioak aztertzea.
- Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak antolatuta: *"Panelak eta kultur kontsumoak"*. Behatokiak kontsumoen neurketetan erabiltzen dituen metodologiaren azalpena.



## 5. ERAGIKETA NAGUSIEN KRONOGRAMA

	Lehen hiruhilekoa	Bigarren hiruhilekoa	Hirugarren hiruhilekoa	Laugarren hiruhilekoa
Arteen eta Industrien eta Sormen-industrien estatistika-emaizak	Landa-lana amaitzea	Analisia eta ustiapenak		Emaitzak zabaltzea
Kultura-alorreko eta sormen-sektoreetako finantzaketa eta gastu publikoaren estatistika	Sormen-sektoreetako azterketa diseinatzea eta prestatzea	Kontratazioa	Landa-lana	
Kultura-ohituren panela	Beste jasoaldi bat	Emaitzak zabaltzea		Beste jasoaldi bat
EKA panela		Beste jasoaldi bat	Emaitzak zabaltzea	
Enpresak eta enpleguak	2019ko emaitzak zabaltzea			2020ko emaitzak zabaltzea
Krisiaren Behatokia		Jarraipena		Ebaluazioa





# 2021eko **JARDUERA PLANA**



**Kulturaren  
Euskal Behatokia**  
Observatorio Vasco  
de la Cultura



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA